

Funtsezko elkarteak

Definizioa: Enpresa bat aurrera ateratzeko egiten diren akordio batzuk dira, eta normalean, hornitzaileekin eta bazkideekin egiten dira.

Gehienetan aliantza hauek gauzatzen direnean, arrazoi zehatz batzuek oinarri direlarik egiten dira:



1. **Negozio eredu bat optimizatzeko:** enpresak elkartu egiten dira kostuak murrizteko, azpikontratatzeko eta azpiegiturak partekatzeke. Baina guk gehien bat erabiliko duguna kostuen murrizketa izango da.
2. **Arriskuak murrizterako momentuan bi elementu nagusi hartu behar dira kontuan:** ziurgabetasuna gutxitzea, hots, hainbat enpresa elkarlanean aritzea produktu bat osatzeko; eta bestetik, arrisku ekonomiko baxuak edukitzearen abantaila izatea, hau da, kostuak murriztea (gastuak minimizatzea).
3. **Baliabideak eskuratzearen barruan honako puntu hauek eduki behar dira kontuan:** baliabide espezifikoak, ezagutza, lizentzia eta bezero berriak lortzea.



Aipatutako guztia kontuan hartuta, aipatu behar da ze nolako elkarte mota dauden eta gure kasuan zeintzuk hartuko ditugun kontuan:

- **Lehiakideak ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa sortzea** izango litzake bat, hau da, elkartuko diren enpresa horiek merkatuan lehiakorak ez direnez, bateratu egiten dira eta modu honetan onurak izango dituzte.
- **Lehiakideen arteko aliantza ere aurki dezakegu,** honek produktu bat sortzeko elkartzen diren enpresa ezberdinen aliantzari deritzo.
- **Joint Venture, negozio berriak eratzeko sortzen** den enpresen bateratze hori da, normalen bi enpresa baino gehiago izan behar dira esku hartzen dutenak garapenean. Kasu batzuetan enpresa berri bat sortzen dute, baina beste batzuetan, aktiboak eta lana euren artean kudeatzeko elkartzen dira.
- **Erosleekiko eta hornitzaileekiko bateratasun bat bermatzen datza,** honekin, produktua aurrera eramaten laguntzen duten materialen eskuragarritasuna ziurtatzen du.



Startinnova proiektua

Guk aipatutako guztia oinarri gisa hartuta hainbat enpresa ezberdinekin harremanetan jarriko gara gure web guneak eskaintzen dituen baldintzak aurrera eramatea ahalbidetzeko:



Alde batetik, Internet eskaintzen duten enpresekin (Vodafone, euskaltel, movistar, yoigo, orange...) harremanetan jarriko gara, horrela, beraien laguntza edukiko dugu eta era berean, gure proiektua era egoki batean aurrera eraman izango dugu.

Beste alde batetik, sarean dauden hainbat blog ezberdinekin elkartuko gara, (gure web orriak eskaintzen duen gaiarekin zerikusia dutenekin).

Buruan daukagun helburuetako bat da, pixkanaka-pixkanaka gure webgunea munduari erakustea edo ezagutzera eramatea. Horrela, gure produktua ospea edukitzen hasiko da eta konpetentzia sortuko du gure produktuaren antzeko produktua eskaintzen dituzten enpresen artean, hau da, musika, filmak, telesailak etab saltzen dituzten enpresekin.



Baina hau modu batean bideratzeko, eta enpresak arriskurik ez jasateko, patenteak eskaintzen dituzten enpresa desberdinekin ere harremanetan jarriko gara, gure webgunea bakarra izateko eta hau eskuratu ahal izateko bide bakarra delako, azkenean monopolio bat osatzen dugu gure produktu eskusiboarekin.



Gainera, psikologian lan egiten duten enpresekin harremanetan jarriko gara, gure bezeroei kalitatezko webgunea eskaini ahal izateko eta azken finean, gure webgunea beste webguneetatik bereizteko eta egokia izateko.

Hau guztiaz aparte, publizitatea egiten eskaintzen diguten enpresekin kontaktuan jarriko gara, horrela gure webgunea famatua egitea, edo behintzat, ospetsuagoa izatea lortuko dugu. Honekin lotuta, esan beharra dago ere, gure enpresari publizitatea egiteaz gain, gure webgunean ere beste enpresei publizitate hori eskainiko diegula, hau da, enpresa desberdinekin kontaktuan jarriko gara, eta honekin kapitala lortuko dugu eta gure proiektuan inbertitu ahal izango dugu honen kalitatea etab hobetzeko.

Azkenik, Google bidez, webgunearen domeinua erosiko dugu, eta era beran, web orrialdea interneten ikusteko aukera izango dugu, modu honetan, gure izenean klikatuz gure web orria ager ahal izateko.

